

## Lekeitioko Udala

### MERKATAL EZ DEN PUBLIZITATE EDO INFORMAZIOAZ KALE EDO BIDE PUBLIKOEN ERABILERAREN KONTURAKO ARAUDIA

#### HITZAURREA

Ondoren datorren araudia sortzera buztatu gaituena, leku edo bide publikoak informazio-bide edota ez merkatal publizitaterako erabiltzearen gaia arautu behararen kontzientzia orokorra izan da. Izan ere, aspaldion aipatu leku edo bideen egoera ez da behar litzatekeen besteko ona.

Bestalde, ez dago dudarik, azken urteotan, komunikatze bideak eta aukerak (irritati, telebista, aldizkari, egunkari...) neurri kontsideragarrian ugartu direla, heurion erabilerara —neurri handi batean, behintzat— helburu publizitarioetarako izan delarik.

Hala ere, gurea bezalako herri txikian "mundu" horrekiko suertatzen den aukera murrizketa dela eta, argi dago edozein taldek beharrezkoa duela bide publikoak bere ormazioa zabaltzeko erabili beharra.

Baina bestetik, Udalak bide eta leku publikoak egoera onean mantentzen ahalegindu behar duela era argi dago.

Horregatik, behar diren eztabaidaldien ondoren, Udal honek ondorengo araudia aurkezten du, aurrean aipatutako gorabehera guztiak bideratu eta behin betirako konpontzeko asmoz.

#### 1. artikulua. Helburua

Udal Administrazioak, bide eta leku publikoak egoera onean gordetzeko duen asmoa kontutan izanik, zuztapen ekonomiko edo merkatal erabilerara zuzendurik ez dauden publizitate bideek udalerriko leku edo bide publikoak erabiltzearekin zer ikusia duten iharduera arau eta erizpideak finkatzea da araudi honen helburua.

#### 2. art. Erabilera faktoreak

Araudi honen arabera, erabilera faktore honako hauek ulertuko dira:

a) *Kartelak*, hau da, gainalde batetan eratsi daitezkeen eta paper batean edota iraupen eskaseko beste materialeren batetan inprimaturiko iragarkiak (dena dela eurion neurria).

b) *Pankartak*, hau da, ehun/oihal edota antzeko materialeren baten gainean egindako tamaina handiko iragarki publizitarioak. Hauek, bolante moduan edota egituradun elementu bati erantsita jar daitezke.

c) *Muralak*, hau da, orma edo antzekoen gainean egindako margo artistiko antzeko iragarkiak.

#### 3. art. Kartelak

Kartelak Udalak horretarako bereziki jarritako lekuetan erantsi ahal izango dira, inoiz ere kolarik ezin izango delarik erabili. Kartel motei dagokionez, hiru desberdin hartuko dira kontutan, horren eranstelekuetan ere zer ikusia izango duelarik: kanpaina puntual eta zabaletakoak (gehien bat, politikoak); kultur-kirol-giza ongizate eta antzeko iharduereen konturakoak eta, azkenik, heriotza-oharren/"notas necrológicas"en konturakoak.

#### 4. art. Pankartak

Jartzerakoan, zirkulazio zonaldeak zeharkatzen dituzten kasuetan, lurretik 5 metrotara eta behar den segurtasunarekin jarriko dira, leku horretako zirkulazioa eragotzi ez dezaten.

Pankartaren iraunaldia daukaten kontserbazio egoeraren arabera izango da. Dena den, iraunaldiau ez da izango *hogei-tabat* egun baino luzeagoa.

Talde bakoitzaren gain geratzen da pankartaren erretiratze lana, bai kontserbazio egoera argia denean, bai aurreko puntuan aipaturiko epea betetzen duenean.

Udalak pankartak jartzeko leku aproposak izendatuko ditu, berautolan, eta lana errazteko asmoz, lokarri/"argolla" tinkoak ezarriko dituelarik.

Pankarta jarri baino egun batzuk lehenago, eta goian aipatutako baldintzak aipatuz, Udalar berri emango zaio idatzi baten bidez.

#### 5. art. Muralak

Muralak saihesbidean, frontoi motako ormetan, obra hertsiduretan, adreiluz egindako ormetan baino ezin izango dira egin. Bestelako ormetan (adreiluz egingabeko azpitan edota behar bezala hertsirik dauden merkatal azpitan) muralak egiteak kalteatutako bizilagunen baietza behar izango du.

Espazio ezagatik murala egiteko leku egokirik ez balego, denboran zaharretatik hasita daudenak ezabatuko dira, gainean berriak egin ahal izateko.

Mural bakoitzaren iraunaldia bere egoerak markatuko du; arazorik sortuz gero, ez da sei hilabetekoa baino luzeagoa izango.

Murala egin baino egun batzuk lehenago, Udalar berri eman beharko zaio, goian aipatutako baldintzak agertzen dituen idaztiaren bidez.

#### 6. art. Pintadak

Ezin izango da inola ere pintadarik egin.

#### 7. art. Udalaren betebeharrak

Betebeharrak honako hauek mugatuko dira:

a) Hasiera batean, Udalak garbitasun-kanpaina gogor bati ekingo dio, dauden pintadak ezabatuz, leku desegokian dauden muralak garbituz... horretarako behar diren ballabideak jarriko dituelarik.

b) Bigarrenik, eta araudian aipatu legez, faktore bakoitzari dagozkion leku ezberdinetan ballabide egokian jarriko ditu, hauek, hain zuzen ere:

##### *Kartelentzako:*

— 12 oholki handi, 3. artikuluan aipatutako kanpaina puntual eta zabaletako kartelak jartzeko.

— 10 oholki tamainu erdiko, kultur-kirol... iharduera kartelak jartzeko.

— 4 oholki txiki heriotza oharrak jartzeko.

*Pankartentzako:* Horretarako aukeratutako lekuetan argoilak jarriko dira.

d) Azkenik, eta behin araudia indarrean jarri ondoren, hile bitik behin eta, orohar, hauteskunde politikoak gertatu ondoren, Udalak karteldegia eta besteren garbiketa egingo du.

#### 8. art. Kalte-ordainak

Araudia betetzen ez den kasuetan, Udalak aphisua emango dio kaltegileari, okerra zuzen dezan. Hala ere, zuzendu ezean, Udalak konpondu egingo luke, kalteordaintzat ondorengo diru-kopuruak kobratzeko eskubidea izango duelarik:

— 1.000 pzta. kartelak oker jartzearen kasuan.

— 2.500 pzta. pankarta bakoitzeko.

— 5.000 pzta. pintada bakoitzeko.

— 10.000 pzta. mural bakoitzeko.

#### ERANSKINA

Hitzaurrean esan bezala, Udalak ahalegin berezia egingo du informazio-iturri hobe eta ugariagoak jartzeko, epe laburrean, besteak beste, Udal Aldizkaria eta Udal Irratia.

#### Lekuak

##### *Karteldegia handiak*

- Eskolapeko orma.
- Laboral aurreko orma.
- Tala ingurua.
- Merkatu ingurua.
- San Andrés.
- Antzokia.
- Usotegi.
- Hostal aurrea.
- Seat ondoa.
- Eusebio M.<sup>a</sup> de Azkue amaieran.
- Aldamiz Etxebarria.
- Arranegi.
- Agirre Solarte.

##### *Tamainu erdiko karteldegia*

- Eskolapea.
- Merkatua.
- Apaltoa kale behean.
- Itxas-Alde inguruan.
- BBK eta Dana-Ona tarteko orma zaharra.
- Tala ingurua.
- Roblesen tailer zahararen ondoan.
- Moderno eta Enrique artean.
- Gallo ondoan.
- Txalaparta barrualdea.

##### *Karteldegia txikiak*

- Eskolapea (orman).
- Erkiaga ingurua.
- Merkatua.
- Eleizapean.